


Pirinioetako atlasa erabiltzeko modua



Mapen eta grafikoaren aurkezpen orrialdeetan zuzenean sartzeko, sakatu  hasiera orrialdeko beheko eskuinaldean.

Hori eginez ondoko orrialdean sartuko zara:

Botoi-barra eta maila geografikoaren aukeraketa

Pirinioetako Atlas

Demografia : Kolore gamen araberako analisia
Orokorra

Populazioaren dentsitatea
Populazioaren dentsitatea (hab/km²)

44.2	(354)
19.3	(352)
9.7	(351)
4.2	(350)
	(359)

Demografia : Lehen planoaren analisia
Orokorra

Aukeratu hierarkia...

Pirinioak Departamenduak
Kartografia Zooma : 100 %

Euskal

mapak / grafikoak

© FLA © IGN - MEGRIN - Insee 2002

Kartografiatu beharreko datuen aukeraketa

Kokapena mendigunean eta zooma'


1. Kartografiatu beharreko datuen aukeraketa

Atlasak 5 datu-eremu proposatzen ditu (ikus ingurumenarako erabilera moduaren amaieran):

- demografia
- biztanleria aktiboa
- nekazaritza
- turismoa
- bestelakoak (etxebizitza)


Beste errepresentazio kartografiko mota bi egon daitezke gainera: koloreen arabeko analisia (analisi koropleta izenekoa) eta ikur proportzionalen arabeko analisia. Errepresentazio eredu biak elkarren gainean jar daitezke. Ez dute zertan eremu berekoak izan behar.

Analisi koropleta:



Eremu jakin bat aukeratzeko, nahi duzun errepresentazio moduaren botoia sakatu. Leiho berri bat agertuko da, 5 eremuekin, erabil daitezkeen eremuekin. Aukeratutako eremua sakatu eta gero botoia sakatu. Gero, aukeratu gaia, eta azkenik, adierazlea.

Aplikazioak balio motak zehazten ditu, modu automatikoan. Haiak aldatzeko edo errerepresentatutako aldagaiaren banaketa ikusteko, sakatu . Leiho berria agertuko da:





Orain, ondoko aukerak dituzu:

- klase kopurua aldatu (3tik 5era),
- errepresentazio koropletarako kolore-paleta aldatu.
- klaseak zehazteko metodoa aukeratu (eskuz, koantilen bidez edo hodei dinamikoaren metodoaren bidez). Zure aukera eskuzko metodoa bada, nahi dituzun atalaseak zehaztu ditzakezu:
 - o atalaseen balioak aldatuz.
 - o trazu bertikalak diagraman mugituz.


Zeure aukerak markatu ondoren, sakatu botoia, balidatzeko

Ikurren bidezko analisisa:



The screenshot shows a software window titled 'Aktiboak : Lehen planoaren analisisa'. It features a dropdown menu set to 'aktibo-tasa', a text field with '15 urtetik 64ra bitarteko bizt. multzo aktib.', and a description '15 urtetik 64ra bitarteko biztanle multzo aktiboa (persona kopurua)'. Below this, there are two green circles representing data points with values 47 642 and 11 911. At the bottom, there are control buttons: a minus sign, a box containing '30', a plus sign, and a lock icon. Labels with arrows point to these elements: 'Aukeratutako eremua' points to the dropdown; 'Gaiaren aukeraketa hautatutako eremuan' points to the text field; 'Adierazlearen aukeraketa hautatutako eremu eta' points to the description; 'Eremuaren' points to the dropdown; 'Legendaren kudeaketa' points to the control buttons; and a box labeled 'Mapan errepresentatutako ikurren gehienezko tamainaren kudeaketa' points to the '30' box.

Eremu jakin bat aukeratzeko, nahi duzun errepresentazio moduaren  botoia sakatu. Leiho berri bat agertuko da, 5 eremuekin, erabil daitezkeen datuekin. Nahi duzun eremua sakatu eta  botoia sakatu. Gero, aukeratu gaia, eta azkenik, adierazlea.

Ikurren itxura kudeatzea:

Ikurren kolorea alda dezakezu,  sakatuz. Ikurrak hutsik ager daitezela ere agindu dezakezu. Horretarako, legendan ikurraren ingeradaren gainean jarri, harik eta gorritu arte, eta gero klik egin. Ikurrak berriro ere kolorez betetzeko, gauza bera egin behar da.



Aplikazioak errepresentatutako aldagaiaren gutxienekoak eta gehienekoak adierazten ditu legendan, dagokion ikur-tamainekin.  eta  botoiak saka ditzakezu, ikurraren gehienezko tamaina aldatzeko. Horretarako, bi botoien arteko zenbakia ere alda dezakezu.

2. Mapa

Analisiaren maila geografikoaren aldaketa


Analisi geografiko lehenetsia udalerrikoa da.

Beste maila geografiko bateko analisia nahi baduzu, orrialdearen goiko aldeko botoiak erabili behar dituzu, eta nahiago duzun maila sakatu. Mapa berehala eguneratuko da.



Informazio laukiak

Sagua mapa gainetik pasatuz gero, informazio lauki bat agertuko da, sagua dagoen entitate geografikoaren izena adierazten (udalerrria, kantoia, departamentua edo eskualdea, eskatzen den analisiaren maila geografikoaren arabera). Entitate geografiko horretarako errepresentatutako adierazleen balioa ere agertzen da.



Maparen atzealdeak bata bestearen gainean jartzea

Mapan departamentuen ingeradak eta erreferentziako udalerrri batzuen izenak daude lehenetsita. Nahi izanez gero, beste mapa-atzealde batzuk erantsi ahal dira edo lehenetsita daudenak kendu.

Horretarako, botoi-barrako botoiak erabili behar dira (pantailaren goiko aldean).



: kantoiaren ingerada agerrarazteko (edo desagerrarazteko), gris koloreko marra lodi batekin (errepresentazioa udalerrri batena denean soilik ageri da botoi-barran)



: sare hidrografikoa agerrarazten edo desagerrarazten du



: errepide sarea agerrarazten edo desagerrarazten du




: erreferentziako udalerrrien izenak agerrarazten edo desagerrarazten ditu

: udalerrrien analisisien kasuan bakarrik egin daiteke. "Departamentua" (edo "kantoia") sakatuz gero, analisia udalerrikoa izango da oraindik ere, baina maparen atzealde aktiboa departamentuena (edo kantoiena) izango da. Informazio laukiek departamentuen (edo kantoiaren) izena bakarrik agerrarazten dute, sagua haien gainetik pasatu ahala. Saguak ukitutako departamentu (edo kantoia) osoa nabarmentzen da.

Zooma mapan


Mendigune osoa maparen leihoan agertzea lehenetsita dago. Mendigunearen zatiak maila ezberdinetara handitu ahal dira.


Horretarako, aukera ugari daude, botoi-barrako botoiak erabiliz edo orrialdearen beheko eta eskuineko aldeko markoa erabiliz.

Botoi-barraren erabilera:  botoia sakatuz gero, laukizuzen bat marraztu daiteke kartan, nahi den neurrikoa, nahi den zonan. Zooma automatikoki egiten da gero zona horretan.

Pantailako beheko eta eskuineko aldeko markoaren erabilera: gora eta behera mugitzeko barra erabil dezakezu, zoomaren neurria gehitzeko edo murrizteko. “Departamentua” ere saka dezakezu marko horretan, eta gero nahi duzun departamentua aukeratu.

Zooma kentzea

Zooma kentzeko eta mendigune osora itzultzeko, gora eta behera mugitzeko markoko barra erabil dezakezu, edo  botoia sakatu (orrialdearen goiko aldeko botoi-barran dagoena).



Zoomaren leku aldaketa

Zooma egiten ari denean, kokapeneko laukizuzenak (orrialdearen beheko eta eskuineko aldean) zoomarekin mendigunearen zein lekutan aurkitzen den adierazten du. Zooma lekuz aldatzeko nahikoa duzu laukizuzen hori mugitu.



botoia ere erabil dezakezu (orrialdearen goiko aldeko botoi-barran dagoena).

Aukeraketa tresnak

Aukeraketa mota ezberdinak egin daitezke: zirkularra, laukizuzena, edo balioak edo karaktere-katea bilatuz. Betiere orrialdearen goiko aldeko botoi-barrako botoien bidez egiten da.



: aukeraketa zirkularra



: aukeraketa laukizuzena




: aukeraketa, balioak edo karaktere-katea bilatuz. Botoi hori sakatuz gero, pantaila berria agertzen da:


Udalerrri bat bilatzeko (edo kantoi, departamentu edo eskualde bat, indarrean dagoen kartaren atzealdearen arabera, ikusi “analisiaren maila geografikoaren aldaketa”), izena edo izenaren zati bat baino ez duzu idatzi behar; aplikazioak karakter-kate hori daukaten udalerrri guztiak erakutsi dizkizu.

Gero, bilatzen ari zaren udalerrria aukeratu behar duzu.

Gero,  botoia saka dezakezu, udalerrriaren zooma egiteko






Ordea, errepresentatutako bi adierazleetako batentzako (koropleta edo sinbolikoa) balio zehatz bat bilatzen ari bazara, sakatu "balioaren arabera". Leihoaren itxura aldatuko da eta aukeratu nahi duzun balioaren adierazlea hautatu beharko duzu. Sakatu adierazle hori. Lortutako baliorik handienak eta txikienak adieraziko dizkizu aplikazioak. Nahi dituzun balioen tartea adierazi behar duzu, minimo berria eta maximo berria adieraziz, idatzita daudenen ordez. Terminalak ardatz gorrian mugitzen dira, adierazitako balioen arabera.



Gero zenbait aukera dituzu:

- Aukeraketa hau aukeraketa arrunt gisa jarri. Kasu honetan, lehen eginiko aukeraketak desagertu egingo dira.
- Aukeraketutako unitateak aldeztu aurretik aukeraketutako unitateei erantsi.
- Balioen arabera bilaketa aukeraketa dauden unitateetara mugatu.


Intro tekla edo  botoia aukeratu, aukeraketa balidatzeko.


Aukeraketutako unitateak mapan bistartzeko, sakatu . Mendialdearen osotasunean berriro zentratzeko, sakatu .


Aukeraketari buruzko informazioak

Aukeraketak egin ondoren, leiho berri bat irekitzen da orrialdearen beheko aldean. Bertan, mapan errepresentatutako bi adierazleentzako balioak daude aukeraketutako unitate guztientzat.

Aukeraketaren gaineko informazioa			
12 km x 12 km inguruan Zerain			
	izena	Populazioaren dentsitatea	16 urtetik 24rako giz. aktib. 2000n
1	Zegama	36,9	0
2	Zerain	24,8	0
3	Gabiria	28,3	0
4	Idiazabal	70,6	0
8			0

 : datuak Excellera esportatzen uzten du. Horrela, errepresentatutako gaiarekin zerikusia duten aldagai guztien balioa berreskuratzen da. Excell orriaren beheko aldean, aldagai bakoitzaren testua dago. OHARRA: Mapak analisi koropleta eta analisi sinbolikoa aldi berean egiten baditu eta analisi horiek ez badira gai berari buruzkoak, analisi koropletaren gaiako datuak soilik berreskuratuko dituzu.

 : honen bidez, aukeraketa gorde daiteke, gero saio berean berriro ireki ahal izango dena.




 : aukeraketutako mapan erakusten du. Aukeraketutako entitateek ingerada gorri eta lodia dute.

 : aukeraketaren zooma egiten du.




: aukeraturako unitate guztiak desaukeratzen ditu.





: aldi baterako aukeraketako tresna. Goian aipaturako tresnen bidez ( ,  eta ) aukeraketa

ezberdinak egiten badituzu eta aukeraketa bakoitzean  sakatzen baduzu datuen leihoan, aukeraketa gogoratuz eta izena emanez, gero aukeraketa horiek konbinatu ahal izango dituzu, loturak, elkarguneak, kenketak edo inbertsioak eginez.

3. Kanpoko datuen karga


Daukazun datuak aplikazioan karga ditzakezu. Datu horiek indarrean dagoen maila geografikoaren arabera zehaztu behar dira (udalerrria, kantoia, departamentua edo eskualdea). Horretarako,  botoia sakatu behar duzu (orrialdearen goiko aldeko botoi-barran dago). Orduan leiho berria agertuko da:



“Inportazio fitxategiko eredu bat ireki” sakatu. Excell orri bat agertuko da, identifikazio geografikoen zerrendarekin; datuak erantsi behar dituzu orduan. C zutabean zeure datuak sartu ondoren, aukeratu gelaxken eremua (B6:C1772 adibidez, udalerriko eskalako datuetarako) eta kopia ezazu hemen goian ageri den leihoan. Sakatu  botoia (datuak irakurri). Leihoa ixtean (OK botoia) zeure datuak ikusi ahal izango dituzu mapan. Ez dira inportaturik egongo.

4. Ingurumenari buruzko datuak

Ingurumenaren botoia sakatzen baduzu (orrialdearen goiko aldean), ingurumenari buruzko datuetarantz joango zara. Datu horiek Corine Land Coverretik atera dira.



Aldi bakoitzean mendigunearen zati bat bakarrik ikus dezakezu, ezin izango baita osorik agertu. Orrialdearen beheko eta eskuineko aldean ageri den mapak kokatzen lagunduko zaitu. Mendigunearen beste zati bat ikusi nahi baduzu, mugitu laukizuzena marko horretan.




Proposatutako adierazleak (orrialdearen goiko eta eskuineko aldean) 6 dira. Haietako bat sakatuz gero mapa egunean jarriko da.

Ingurumenari buruzko mapa-atzealdeak, eta fauna eta florako interes ekologikoa duten naturguneak (Znieff) bata bestearen gainean jar ditzakezu. Ondoko hauen artean aukera dezakezu:

- Znieff1: Azalera txikiko aldeak, ikuspegi ekologikotik homogeneousak, gutxienez habitat edota espezie urritu edo mehatxatu bat daukatenak.
- Znieff2: Naturgune handiak, potentzial biologiko garrantzitsuak eskaintzen dituztenak.

Horretarako, "aldea" sakatu behar da botoi-barran, orrialdearen eskuineko eta goiko aldean:




5. Grafikoak

Eremu grafikoan sartzeko, sakatu "grafikoak" botoia "mapa" orrialdetik aurrera pantailaren beheko aldean.



Grafikoak aukeratzea




Eremua aukeratu goitibeherako lehenengo zerrendan, eta gero gaia, bigarren zerrendan. Azkenik, grafikoa aukeratu eremu eta gai zehatzetarako proposatzen diren grafikoaren zerrendan.

6. Inprimaketa (mapak eta grafikoak)

Mapa edo grafikoa inprimatzeko, sakatu  .

Mezu batek jakinaraziko dizu iruzkin labur eta editagarri bat idatz dezakezula:



Jarraitzeko, sakatu berriro  .

Leiho berria agertuko da. Zenbait aukera dituzu:

- Paperean inprimatu.
- PDF edo JPEG fitxategia sortu.
- Mapa edo grafikoa edozein software ofimatikotan sartu.

Aholkua inprimatzen
mapa inprimatzera zoaz,
Ez ahaztu aukeraketa egitea "etzana" inprimaketaren elkarriketa koadroaren orientazioa
horrela mapa behar bezala geratzen da orrialdean

Inprimaketako mapa baino irudi hobea gorde nahi baduzu,
2 bide:

1) PdfCreator tresnak doan kargatu behera:

[PdfCreator](#)

PdfCreator-ek pdf edo jpeg arkiiboak sortzeko aukera ematen dizu, horiek inprimatzea bezain erraz.

2) saka ezazu ImprPant tekla (printScreen) maparen irudia kopiatzeko zure ohar klipean
gero itsas ezazu edozein programatan

beti zabaldua

